

**AITZINA**

Editorea: Fermín Munariz. **Koordinatzailea:** Mariasun Monzón. **Aholkularia:** Iñaki Egaña. **Diseñatzailea:** Juan Luis Napal. **Helbidea:** Rincón de la Aduana, 18 behea. 31001 Iruña. **Tlfnoa:** 948-21 99 99. **Faxa:** 948-212329. **E-mail:** aitzina@haika.net

# NORANTZA JOSE MARIA VELEZ DE MENDIZABAL

EUSKO IKASKUNTZAREN GERENTEA

## «Gure altxorra sare telematikoaren bidez zabaldu nahi dugu»

Laurogei urteko lanaren ondorioz duen altxorra zabaldu nahi du Eusko Ikaskuntzak, eta horretarako sare telematikoak hautatu du, tradizioa modernitatearekin uztartzea posible dela baieztatzeko.

kulturari buruzkoa. Aldizkari honek 1.800 harpidedun du mundu osoan, eta, mundu osoan esaten dudanean, Australian, Txinan, Europan eta abarretan esan nahi dut. Joan den asteko asteartean, adibidez, aldizkari honek 3.000 akzesio izan zuen.

**Zurrumurruak daude zer-bait egiten ari ote zaretan Auzamendi entziklopediarekin...**

Bai, guk Lasa familiarekin, Auzamendiren jabeekin, akordio batera iritsi gite-

nen sarean jartzeko. Horrek 60.000 argazki edo irudi digitalizatu, 100.000 ahots eta abar eskatuko du. Entziklopedia horretan mila bat autorek idatzi dute zer-bait, eta orain hasi gara, banan-banan, haiekin biltzen sarean sartzeko bere baimena lortu nahian, haiek baimena beren lanak paperetan ateratzeko bakarrik eman baitzuten. Prozesu horretan gaude, baina horrek entziklopedia ateratzea ekarriko du, Britaniako Entziklopedia baino handiagoa, euskal kulturari buruzko datu baserik handiena.

**Tradiziozko gaiak tratatzeko euskarri moderno erabilten duzue. Tradizioa eta modernitatea uztartu behar dira?**

Modernitatea ez zen tradizioz gabe egongo. Adibide bat jartzeko, euskararena aipatuko dut. Euskara tradizioa da, nahiz eta bere tratamendua modernoa izan.

**Etorkizunari begira, zein dira Eusko Ikaskuntzak dituen erronkak?**

Egunotan Eusko Ikaskuntzako hogeitairte bidu gara hurrengo bost urteko plan estrategikoa diseinatzeko, eta bilera horretan adostatu ditugu ildo orokorrak. Alde batetik, ikerkuntza mailan kalitatea zaindu behar dugu, eta, bestetik, irakuntzaren arloan oraingo eskaintza gehiago ireki behar dugula uste dugu. Gure erronka nagusia adostatu duguna aurrera eramatea da.

Bai, proiektu hauetaz hitz egiten dugunean ezin dugu "Euskonius" ahaztu, lehenengo aldizkari informatikoa, zientzia eta



Kaizko Corbelli

**BEGONA SIMON**

Bere buruari Eusko Ikaskuntzak jarri dion eronka lehenengo fruituak jasotzen ari da, eta aurten hiru master aurkeztu ditu, datu basearen lanarekin jarraitzen du eta "Euskonius"-ek, bere aldizkari informatikoa, 1.800 harpidedun du mundu osoan.

**Azken urteotan proiektu asko eramaten ari zarete aurrera. Zein dira proiektu hauek?**

Eusko Ikaskuntzak egiten dituen ikerketen emaitzak zabaltzeko jarri dira martxan proiektu hauek. Kontuan hartu behar da, lanean laurogei urtetan aritu ondoren, altxor ikaragarria dugula, al-mazen bat, eta biltegi horri irtenbidea eman behar genion. Erreflexio hau egin genuenean, Eusko Ikaskuntzak, berri ere aitzindari izanik, informazio hori zabaltzeko, sare telematikoak hautatu zuen. Eskaintza zabal da, hor daude, alde batetik, datu basea, non ikerkuntzaren emaitzak jasotzen diren eta, bestetik, hiru master daude, 600 ordu baino gehiagokoak.

**Beste zenbait gauzatan ere aitzindaria da Eusko Ikaskuntza...**



Xillardegí

**Zenbait galdera**

Nola uler daiteke, Lizarragarazi betean, prentsaren salmentan "Diario de Navarra", "Correo Español" eta "Diario Vasco" nagusi izatea?

Nola uler daiteke, Bta Euskarari eta Kontseleuren arrakasta betean, edozein tabernatan sartu, are herriker euskaldunetant ere, piztuta dagoen irratidardaraz barra-barra ari dela topatzea?

Nola uler daiteke «Fuera gabachos» esaten duten askok eta askok, «Boicot a los productos franceses» leloa betetzea, baina «Boicot a los productos españoles» proposatzeakotan, ideia «chorrada»tzat baztertea?

Nola uler daiteke, gudari muresgarri baten ospakuntza batean, «pasodoble torero» bat norbaitek jo, eta ospakide askok eta askok txaloka eta «olé»-ka bero-bero erantzutea?

«Zezenak euskal festa dituk» esan dit batek. Bego. Zergatik bultzatzen dituzte hortaz corridak eta zezen-plazak PP-koek eta PSOE-koek? Euskaltzale bihurtu zaizkigu? Corridak euskal festa direlako bultzatzen dituzte, ala festa espiñola direlako?

Lizarragarazi betean, hautu politikoa abertzalea egin dugu. Bai. Baina kultur hautua, espiñolista.

Hots, zer da herri bat bere nazio-kulturatik at? Arraza? Pasaortea?

Gu Lizarragarazi-ren alde gaude. Ondorio guzietekin.

Batzuk, aldi, itxura denez, Estella-Saint Jean Pied de Porten alde. Una región franco-española con cocido madrileño, aski dute.

Bejain daicela !

## Aitzindariak

**KATHARINA BOURBON-LABRIT**  
1559 - 1604



**HENRIK III FRANTZIAKO IV EGIN DENETIK, ARREBA PAUEN BARATU DA, NAFARROAKO ETA BIARNOKO ERRET ORDARI...**



**BERTZE GIZON BAT MAITATUAGATIK ULTRABAPISTA BATEKILAN ESPOSARAZI DUTE, GO AFERAK DIRELA KAUSA...**



**ANAIJA EZ BEZALA HIGANANT IRAUNEN DU BETI, ETA KATOLIKOEN NAHIZ CALVINDARREK LIBERTATEA DAVUKATE BERAK AGINDU ESTATUETAN...**



**BOURBONDARRA BAINO LABRITARRA DUGU JITEZ: EZ TRAVSKIL ALDAKORRA, BAINA FERMU ETA GORANAHIA HONATX BERE MONOGRAMA «LA FERMESE»**



**ESTRAIN-AZKENEKOTZ ELIZA KATOLIKOAK EZ DU LAGUNDU FRANTZIA BAIT HAKO PRINTEZESA BATEAN HILETA**